



**AKTEA**  
**BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA**  
(2024-10-31/11)

<b>Bilkuraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia:</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2024-10-31
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Udaletxearen egoitza)
<b>Hasiera-ordua:</b>	18:00
<b>Amaiera-ordua:</b>	18:39

**Bertaratuak**

**Alkate-Presidentea:** Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)

**Zinegotziak:**

Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)	Aritz Abaroa Cantuariense (EAJ-PNV)
Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)	Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)
Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)	Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)	Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)	Ainhoa Jayo Madariaga (EAJ-PNV)
Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)	Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)
Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)	Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)
Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)	Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024  
13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214

Data: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8001146B60016Y2H5T6G4P3



**Bertaratu ez direnak:**

**Idazkaria:** Jurdana Uriarte Lejarraga

### Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2024-10-22 OB (10)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Kontratazio zentraletik bideratutako posta zerbitzuko kontratua esleitzea.
- 4.- 2024ko Bermeoko Udal Lanpostuen Zerrendaren aldaketak onartzea.
- 5.- 2023. urteko Kontu Orokorra behin betiko onartzea.
- 6.- Aurreko urteetako fakturak onartzea. Gas naturalaren hornidura.
- 7.- 2024ko 5070-5817 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
- 8.- Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2024ko irailaren 17 eta 24, urriaren 1, 8 eta 15eko erabakiak.
- 9.- Eskari eta itaunak.

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2024-10-22 OB (10)

Batzarkideek 2024ko urriaren 22ko 10/2024 akta aho batez onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214  
Datea: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



**FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.**

Batzarkideek ez dute adierazi gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukatela.

**3.- KONTRATAZIO ZENTRALETIK BIDERATUTAKO POSTA ZERBITZUKO KONTRATUA ESLEITZEA.****Xedea**

2024tik 2026ra Bermeoko Udalaren posta zerbitzuaren esparru-akordioaren ondoriozko kontratuaren esleipena egin orduko errekerimendua.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zentraletik, 2024tik 2026rako posta zerbitzuaren esparru-akordiora atxikitzeko dokumentazioa jaso zen.

Bigarrena: Bermeoko Udala, aipatutako esparru akordiora atxiki zen.

Hirugarrena: Bizkaiko Foru Aldundiaren 2024ko apirilaren 11ko erabakiaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiarentzat eta atxikitako erakundeentzat esparru-akordioa egiteko prozedura hastea erabaki zen.

Laugarrena: Esparru-akordioa 2 lotek osatzen dute, eta Bermeoko Udala bi loteen barruan zegoen:

- 1. lotea: gutun ziurtatu, premiazko gutun ziurtatuak, jakinarazpen administratiboak, balio fede-emailea duen fax-zerbitzua, helmugan frankeatzea, posta kutxatila eta zerbitzu horiei lotutako zerbitzu gehigarriak
- 2. lotea: gutun arruntak eta premiazkoak, naziokoa eta nazioartekoa, 2 kilora arte, paketeak 20 kilora arte, liburuak, aldizkariak, posta-publizitatea eta marketin zuzena.

Bosgarrena: 2024ko apirilaren 29an Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentrala bildu zen, Kontratazio Mahai gisa, aurkeztutako enpresen A gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta kalifikatzeko. Hona hemen aurkeztutako enpresak:



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214  
Data: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



- AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO, SA (IFZ: A95265195)
- SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)

Aurkeztutako enpresa guztiak onartuak izan ziren.

Seigarrena: 2024ko maiatzaren 3an, Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentrala bildu zen, eta lizitaziorako onartutako enpresak zehaztu ziren:

- AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO, SA (IFZ: A95265195)
- SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)

Era berean, onartutako lizitatuzaileen automatikoki kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideei buruzko eskaintzak ireki ziren, eta esparru-akordioaren sustatzaileari bidaltzea erabaki zen, ezarritako irizpideen arabera eskaintza ebaluatzeko.

Zazpigarrena: 2024ko ekainaren 3an, balorazio txostena egin zen, baldintza agiri orri zehatzen karatulan ezarritako hautapen-irizpideen arabera.

Zortzigarrena: 2024ko ekainaren 6an, Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentrala bildu zen, Kontratazio Mahai gisa, ezagutzera emateko zer haztapen eman zitzaizen eskaintzei automatikoki kuantifikatzekoak ez ziren irizpideei buruz, eta irekitzeko automatikoki kuantifikatzekoak diren irizpideei buruzko eskaintzak, emaitza honekin:

### 1. lotea:

LIZITATZAILEA / LICITADORA	PUNUAZIOA / PUNTUACIÓN
SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	98
HOBEKUNTZAK / MEJORAS	BAI
INGURUMEN IRIZPIDEA / CRITERIO MEDIOAMBIENTAL	44 (ibilgailu kopurua / nº de vehículos)

### 2. lotea:

LIZITATZAILEA / LICITADORA	HAZTAPENA/ PONDERACIÓN
AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO, SA (IFZ: A95265195)	13,00
HOBEKUNTZAK / MEJORAS	BAI



INGURUMEN IRIZPIDEA / CRITERIO MEDIOAMBIENTAL	44 (ibilgailu kopurua / n° de vehículos)
LIZITATZAILEA / LICITADORA	HAZTAPENA/ PONDERACIÓN
SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	47,00
HOBKUNTZAK / MEJORAS	BAI
INGURUMEN IRIZPIDEA / CRITERIO MEDIOAMBIENTAL	44 (ibilgailu kopurua / n° de vehículos)

Bederatzigarrena: 2024ko ekainaren 17an, automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen txostena egin zen.

Hamargarrena: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 145, 146 eta 150. artikuluekin bat etorriz, Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentralak, aipatutako txostenekin bat etorriz eta kontratazio-organoak zehaztutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, eskaintzak baloratu zituen, eta proposamenak honela sailkatu zituen:

**1. lotea:**

LIZITATZAILEA / LICITADORA	PUNTAZIOA / PUNTUACIÓN
SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	98

**2. lotea:**

LIZITATZAILEA / LICITADORA	PUNTAZIOA / PUNTUACIÓN
SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	86,43
AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO, SA (IFZ: A95265195)	60,60

Hamaikagarrena: Eraitza horietan oinarrituta, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2 loteak SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407) enpresari esleitzea proposatu zuen, puntu gehien lortu zituen lizitatzailerak baitzen bi loteetan, eta ezaugarri hauen arabera:

**1. lotea:**

LIZITATZAILEA / LICITADORA	PUNTAZIOA / PUNTUACIÓN
----------------------------	---------------------------



SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	98
HOBKUNTZAK / MEJORAS	BAI
INGURUMEN IRIZPIDEA / CRITERIO MEDIOAMBIENTAL	44 (ibilgailu kopurua / nº de vehículos)
PREZIOA	Eskainitako banakako prezioak
BERMEOKO UDALAREN GEHIENEZKO LIZITAZIO AURREKONTUA	104.625,00 € BEZa kanpo (BEZa: %21. Guztira: 126.596,25 €)
EXEKUZIO EPEA	2024ko urriaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra

## 2. lotea:

LIZITATZAILEA / LICITADORA	PUNUAZIOA / PUNUACIÓN
SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	86,43
HOBKUNTZAK / MEJORAS	BAI
INGURUMEN IRIZPIDEA / CRITERIO MEDIOAMBIENTAL	44 (ibilgailu kopurua / nº de vehículos)
PREZIOA	Eskainitako banakako prezioak
BERMEOKO UDALAREN GEHIENEZKO LIZITAZIO AURREKONTUA	32.175,00 € BEZa kanpo (BEZa: %21. Guztira: 38.931,75 €)
EXEKUZIO EPEA	2024ko urriaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra

Hamabigarrena: Aipatutako enpresari bermea eskatu ondoren 2024ko abuztuaren 30eko 5.061 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, aurkeztu egin da.

Hamahirugarrena: 2024ko irailaren 20an, idazkaritzako AOTak eta idazkari nagusiak aldeko txostena egin dute.

Hamalauugarrena: 2024ko urriaren 7an, Udal kontu-hartzaileak fiskalizazio txostena egin du.

## Argudioak

Lehenengoa: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 219. artikulua araberan, sektore publikoko kontratazio-organo batek edo gehiagok esparru-akordioak egin ahal izango dituzte enpresa batekin edo gehiagorekin, epe jakin batean esleitu nahi diren kontratuek bete beharreko baldintzak finkatzeko.



Bigarrena: Halaber, lege horren 221. artikuluan esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak esleitzeko prozedura arautzen da.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik, eskumena Osoko Bilkurarena da.

## Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Aurkeztutako eta onartutako eskaintzak sailkatzeko, Bizkaiko Foru Kontratuzio Zentralak egindako proposamena onestea, ondoko sailkapenaren arabera:

### 1. lotea:

LIZITATZAILEA / LICITADORA	PUNTAZIOA / PUNTUACIÓN
SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	98

### 2. lotea:

LIZITATZAILEA / LICITADORA	PUNTAZIOA / PUNTUACIÓN
SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	86,43
AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO, SA (IFZ: A95265195)	60,60

BIGARRENA: Bermeoko Udalaren posta zerbitzua, esparru-akordioaren barruan, administrazio honetarako eskaintza onena, bi loteetarako, SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407) enpresak aurkeztutakoa dela ezartzea. Esleipenaren baldintzak hauek dira:

### 1. lotea:

LIZITATZAILEA / LICITADORA	PUNTAZIOA / PUNTUACIÓN
SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	98
HOBEKUNTZAK / MEJORAS	BAI
INGURUMEN IRIZPIDEA / CRITERIO MEDIOAMBIENTAL	44 (ibilgailu kopurua / nº de vehículos)



PREZIOA	Eskainitako banakako prezioak
BERMEOKO UDALAREN GEHIENEZKO LIZITAZIO AURREKONTUA	104.625,00 € BEZa kanpo (BEZa: %21. Guztira: 126.596,25 €)
EXEKUZIO EPEA	2024ko urriaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra

## 2. Iotea:

LIZITATZAILEA / LICITADORA	PUNTUAZIOA / PUNTUACIÓN
SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA SME (IFZ A83052407)	86,43
HOBEKUNTZAK / MEJORAS	BAI
INGURUMEN IRIZPIDEA / CRITERIO MEDIOAMBIENTAL	44 (ibilgailu kopurua / nº de vehículos)
PREZIOA	Eskainitako banakako prezioak
BERMEOKO UDALAREN GEHIENEZKO LIZITAZIO AURREKONTUA	32.175,00 € BEZa kanpo (BEZa: %21. Guztira: 38.931,75 €)
EXEKUZIO EPEA	2024ko urriaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra

Gehienezko lizitazio aurrekontua honakoa da: 136.800 € gehi dagokion BEZa (28.728 euro), GUZTIRA: 165.528 euro.

**HIRUGARRENA:** Kontratu honi egotz dakioken gastua baimentzea eta xedatzea, 165.528,00 eurotan (BEZa barne), aurrekontutako 00100-92011-2271000 kontu-sailaren kargura.

**LAUGARRENA:** Kontratuaren arduraduna Idazkaritako AOTa izendatzea, kontratuaren jarraipenaren eta ohiko gauzatzearen arduradun legez.

**BOSGARRENA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Erregistroari (REVASCON) jakinaraztea esleitutako kontratuaren oinarritzko datuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 346.3. artikuluan xedatutakoarekin bat.

**SEIGARRENA:** Erabaki hau esleipendunari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zentralari jakinaraztea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214  
Data: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia





#### 4.- 2024KO BERMEOKO UDAL LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETAK ONARTZEA.

Endika Etxebarriak aldaketaren nondik norakoak azaldu ditu.

Idoia Platasek adierazi du gai hau negoziazio mahaian asko landu dela eta negoziazio mahaian gauza batzuekin bat etorri direla eta beste batzuekin ez. Esan du harritu direla osoko bilkurara ekartzea gaia, idazkariaren txostenean jasotako agiri batzuk falta direlako espedientean eta espediente osatu zitekeelako osoko bilkurara gaia eraman aurretik.

Idoia Platasek esan du ez daudela ados gauza bitan: Batetik, itzultzailearen lanpostua C1 moduan iraugitzeko izaera izan duela eta iraugitze hori kendu dela, A2 izan behar denean lanpostua. Bestetik, hiru lanpostu gehitu direla lanpostuen zerrendan eta horiek gehitu baino lehen enplegu plana egin behar dela, udalaren beharrezan zehaztutako diren ikusteko eta plantillak egokitzeko gaur egungo beharrezan zehaztutako eta, etorkizunerako zerbitzu onak emateaz gain, udala jasagarria izatera. Aurreratu du ez dutela babestuko proposamena.

Endika Etxebarriak esan du txostena jada Idazkaritza Sailean dagoela eta pasatuko diotela txostena. Esan du itzultzailearen kasuan %8ra heldu behar direla eta Lan Eskaintza Publikoan sartuko dela eta, agian, aurrerago iraugitzeko moduan jaso. Peoi eta kale garbiketaren kasuan, adierazi du euren legealditik datorren zerbait dela eta ados daudela. Adierazi du peoi bi jaitsi zirela eta errekueratu nahi izan direla.

Idoia Platasek esan du 2021ean kendu zirela lanpostuok, ez zirelako egon beteta eta errealitate egokitu zirela.

Endika Etxebarriak adierazi du egonkortzearen itxierari itxaroten daudela eta planifikatuta dagoela enplegu plana egitea eta langileen berrantolaketa aurrera eramatea, baina bitartean beharrezan ikusi dela neurriak hartzeko.

Xabier Ortuzarrek esan du ados daudela etorkizunera begira enplegu plana lantzen hasteko beharrezanekin. Azaldu du brigada ez dagoela "boyante", lehen hamazazpi langile egon baitziren eta orain sei-zortzi pertsona baitaude. Gaineratu du errefortzua behar duela.

Idoia Platasek adierazi du orain denbora asko hamazazpi peoi zeudela, ura eta estolderia ere Bermeoko Udalak kudeatzen zuelako. Esan du ez duela ukatzen bi peoi edo ofizial



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

##### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214

Data: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia



gehiago egon behar direnik, baina udala osotasunean begiratu behar dela, beste udal batetara joateko, gaur egungo egoera eta orain dela berrogei urtekoa ez delako berdina.

## Xedea

2024ko Bermeoko Udal Lanpostuen Zerrendaren aldaketak onartzea.

## Aurrekariak

Lehenengoa: Antolakunde batean, faktore nagusi eta ezinbestekoa dira giza baliabideak kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko eta ezarritako helburuak lortzeko, pertsonak baitira erakundearen kapital nagusia. Hortaz, argi dago, administrazioetan giza-baliabideen kudeaketa egokia burutzea funtsezkoa dela, horrela lor baitezakegu administrazio eraginkorra eta efizientea izatea, hau da, gaitasuna duena herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko.

Gizartea etengabeko eraldaketa batean murgilduta dabil, eta udalak dira herritarrengan hurbilen dauden antolakundeak, beraz, ezinbestekoa da horien antolakuntzak herritarren beharrietara egokitzea, giza baliabideen kudeaketa eraginkor baten bidez.

Bigarrena: Ezinbestekoa da, udal plantilla eta lanpostuen zerrendan dagozkion eguneratzeak gauzatzea, lanpostuen zerrenda baita erakundearen antolamendua egituratzeko erabili beharreko tresna, giza baliabideen arrazionalizazio eta optimizazioa lortu ahal izateko.

## Argudioak

Lehenengoa: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikulua ezartzen du:

### “74. artikulua. Lanpostuak antolatzea.

Administrazio Publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214

Fecha: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak. Erabilitako tresna horiek publikoak izango dira.”

**Bigarrena:** Apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailaren 90.2. artikulua xedatzen du Tokiko Entitateek haien erakundeko lanpostuen zerrenda egin beharko dutela, funtzio publikoaren inguruko oinarritzko legediak diosenaren arabera, eta Estatuari dagokiola Lanpostuen Zerrendak, lanpostuen deskripzioak eta beraien eraketarako bete beharreko baldintzak lantzeko oinarri hartu beharko diren arauak ezartzea.

Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126.4. artikulua dio LPZak funtzio publikoaren oinarritzko legedian jasotako edukia izan beharko dutela eta apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailaren 90.2. artikuluan jasotako arauak oinarri hartuz garatu beharko direla.

**Hirugarrena:** Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua lanpostuen zerrendak arautzen ditu:

**“45. artikulua.– Lanpostu-zerrendak.**

- 1.– Lanpostu-zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-beharrizanak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera.
- 2.– Lanpostu-zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo bereizita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratadun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.
- 3.– Lanpostu-zerrendak eta haietan izandako aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkarian foru-aldundietakoak edo toki-erakundeetakoak direnean. Argitaratu eta hurrengo egunean



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214

Data: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



hasiko dira ondorioak izaten lanpostu-zerrendak, non eta berariaz beste data bat zehazten ez den. Hori guztia, lanpostu-zerrenden barruko datuen transferentzia bermatze aldera.

(...)

6.– Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezkotresnak.

Apartatu honetan xedaturik dagoenerako, aldaketa hauek ez dira kontuan hartuko: eduki funtzionala ukitu gabe, lanpostuak adskribatuta dauden sail edo organoen izenari bakarrik eragiten diotenak.

7.– Lanpostu-zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez, non ezingo duten barnean hartu lanposturik baldin eta haren dotazioari ezin bazaio eutsi dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantilletan aurreikusitako kredituekin.”

Halaber, 46. artikuluan lanpostuen zerrendaren edukia xedatzen da:

**“46. artikulua.– Lanpostu-zerrenden edukia.**

1.– Lanpostu-zerrendek datuok adieraziko dituzte, nahitaez, lanpostu bakoitzeko:

- a) Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dagoen dotazio kopurua.
- b) Zer sail edo zentro organikotara adskribatuta dagoen.
- c) Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, sailkapen profesionaleko talde edo azpitaldeak eta zer kidego, eskala edo beste sistematarako adskribatuta dauden, hala badagokio. Ez dago eragozpenik lanpostuak talde, azpitalde, kidego edo eskala batera baino gehiagotara adskribatzeko.
- d) Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala.
- e) Hornitzeko-sistema –dela lehiaketa, dela izendapen askea– eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaien hornikuntza hori.
- f) Ordainsari osagarriak, lanpostuari lotuak.
- g) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.
- h) Dedikazio-araubidea.



i) Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den.

2.– Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira, era berean, dena delako lanpostuan jarduteko eskatzen diren berariazko betekizunak, hala badagokio.

3.– Lanpostu-zerrenden bitartez bakarrik ken daitezke lanpostuak edo dotazioak lan-kargak aztertzeko prozesuen ondorioz, langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren.”

i) atalean adierazitako lanpostuaren izaera dela-eta, funtzionarioen lanpostuen zerrenden eredia onartu eta eratzeko arauak ezartzen dituen 1989ko otsailaren 6ko Aginduan ezarritakoaren arabera, lanpostu singularizatutzat hartuko dira izendapenagatik eta edukiagatik gainerako lanpostuetatik bereizten direnak. Beti ere, singularizatuak izango dira barne egituran arduradun funtzioak dituztenak. Gainontzekoak normalizatu izaera izango dute.

Laugarrena: Lanpostuen izaerari dagokionez, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 9. artikulua honakoa xedatzen du:

“(…)2. Nolanahi den ere, ahal publikoak baliatzeko jardunetan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrak zaintzeko zereginetan zuzenean nahiz zeharka parte hartzea eskatzen duten eginkizunak betetzea funtzionario publikoei dagokie, modu eksklusiboan, betiere, administrazio publiko bakoitzean arlo hori garatzeko legean ezarritakoari jarraituz”.

7/1985 Legearen 92.2 artikulua, honakoa:

“Funtzionarioen estatutupeko langileek soilik betetzeko gordetako funtzio publikoak hauek dira: aginpideaz baliatzea eskatzen dutenak, fede publikokoak eta aginduzko lege-aholkularitzakoak, ekonomia-finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barneko kontrol eta ikuskapenekoak, kontabilitatekoak eta diruzaintzakoak eta, orokorrean, lege honen garapenean, jarduna betetzerakoan objektibotasuna, inpartzialtasuna eta independentzia hobeto bermatzeko funtzionarioentzat gorde daitezzenak”.

Eta 781/1986 Errege Dekretu Legegileak honakoa:

169. artikuluan: “1. Corresponde a los funcionarios de la Escala de Administración General el desempeño de funciones comunes al ejercicio de la actividad administrativa. En consecuencia, los



puestos de trabajo predominantemente burocráticos habrán de ser desempeñados por funcionarios técnicos, de gestión, administrativos o auxiliares de Administración General”.

170. artikuluan: “1. Tendrán la consideración de funcionarios de Administración Especial los que tengan atribuido el desempeño de las funciones que constituyen el objeto peculiar de una carrera, profesión, arte u oficio”.

171. artikuluan: “1. Perteneceerán a la Subescala Técnica de Administración Especial, los funcionarios que desarrollen tareas que son objeto de una carrera para cuyo ejercicio exigen las leyes estar en posesión de determinados títulos académicos o profesionales”

172. artikuluan: “1. Perteneceerán a la Subescala de Servicios Especiales, los funcionarios que desarrollen tareas que requieran una aptitud específica, y para cuyo ejercicio no se exija, con carácter general, la posesión de títulos académicos o profesionales determinados.

2. Se comprenderán en esta Subescala, y sin perjuicio de las peculiaridades de cada Corporación, las siguientes clases:

(...) d) Personal de Oficinos.

2021eko maiatzaren 28an Osoko Bilkurak izandako bileran, besteak beste, ofizial lanpostu bi sortzea erabaki zen.

Zerbitzu	1102207	OFIZIALA (soldagintza)	1	C2	12	18.391,88	1	OB	A	L	L	(1)	Hutsik
Zerbitzu	1102207	OFIZIALA (biltegia)	1	C2	12	18.391,88	1	OB	A	L	L	(1)	

Zerbitzuetako ofizial lanpostu bi (soldagintza eta biltegia) horiek lan itunpeko izaera dute. Kontuan izanda zerbitzuetako lanpostuak funtzionario izaera dutela eta zerbitzu berezietako azpieskalako eta lanbideetako langileen motan sartzen direnak direla, 786/1986 EDLaren 172.2.d) artikuluekin bat, lanpostu bi horiei funtzionario izaera jartzea beharrezkoa ikusten da. Are gehiago lanpostu horien hornitze prozesua administrazio bereziko langile taldeari bideratuta egon behar denean.

Era berean, eta gorago aipatutako artikuluekin bat, lan itunpeko lanpostu moduan agertzen diren ondorengo lanpostuak, funtzionario izaerara aldatzea beharrezkoa da:

Euskera Saileko itzultzailea (1114301): jarduera administratiboko lan arrunta egiten duelako eta bere lana burokratiko delako, 786/1986 EDLaren 169. artikuluekin bat.



Antolakuntza eta teknologi berriak saileko (1109202) administrari laguntzailea: jarduera administratiboko lan arrunta egiten dutelako eta beraien lana burokratiko delako, eta administrari laguntzaileen lanpostuak, administrazio ororrekoak diren heinean, funtzionarioei gordetakoak direlako, 786/1986 EDLaren 169. artikularekin bat.

**Bosgarrena:** Honako plaza hauek Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko eskaletan sailkatzea:

1. Liburutegi eta artxiboko laguntzailea (11150131)
2. Liburutegiko atezaina (11150111)
3. Azokako arduraduna (1102203)

Toki-araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan aitortutako autoantolaketa-ahala baliatuz, udal bakoitzari dagokio funtzionarioen eskalak, azpieskalak eta klaseak sortzea eta horien sailkapena egitea.

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikulua xedatzen du:

**Artículo 169.**

1. Corresponde a los funcionarios de la Escala de Administración General el desempeño de funciones comunes al ejercicio de la actividad administrativa. En consecuencia, los puestos de trabajo predominantemente burocráticos habrán de ser desempeñados por funcionarios técnicos, de gestión, administrativos o auxiliares de Administración General.

La Administración del Estado fijará los criterios de población, clasificación de la Secretaría respectiva, y demás que sirvan para la determinación de las Corporaciones en que puedan existir puestos de trabajo a desempeñar por funcionarios de cada una de las Subescalas de la Escala de Administración General.

- a) Pertenece a la Subescala Técnica de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de gestión, estudio y propuesta de carácter administrativo de nivel superior.
- b) Pertenece a la subescala de gestión de Administración General los funcionarios que realicen tareas de apoyo a las funciones de nivel superior.
- c) Pertenece a la Subescala Administrativa de Administración General, los funcionarios que realicen tareas administrativas, normalmente de trámite y colaboración.



d) Pertenerán a la Subescala Auxiliar de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de mecanografía, taquigrafía, despacho de correspondencia, cálculo sencillo, manejo de máquinas, archivo de documentos y otros similares.

e) Pertenerán a la Subescala de Subalternos de Administración General, los funcionarios que realicen tareas de vigilancia y custodia interior de oficinas, así como misiones de Conserje, Ujier, Portero u otras análogas en edificios y servicios de la Corporación.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lanpostuen Zerrendan, lanpostuak atxikita dituzten kidegoak edo eskalak jaso behar dira. Ondorioz, Lanpostuen zerrenda da lanpostu bakoitzaren edukia aldatzeko tresna tekniko bakarra. Lanpostu horiek administrazio orokorreko eta administrazio bereziko eskaletara atxiki ahal izateko ezinbestekoa da lanpostu horren zeregin, funtzio eta erantzukizunen arabera egitea, eta lanpostu horien funtzioak aztertu ondoren egokia litzateke administrazio orokorreko eta administrazio bereziko eskaletan sailkatzea.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 46. c) artikulua adierazten du ez dagoela eragozpenik lanpostuak talde, azpitalde, kidego edo eskala batera baino gehiagotara adskribatzeko.

**Azokako arduradun plaza** Administrazio Bereziko eta Orokorreko eskalatan sailkatzen da, lanpostu horren funtzioak kontuan izanik:

- Azokako jardueraren ohiko garapena zaindu, honen irekieraz arduratuz (AB).
- Baserritarren postuei dagokion tasak kontratu eta kobrantza horren berri Udaletxeko Diruzaintza sailari eman (AO).
- Saltokietako titularrarekin harreman zuzena izatea eta jakinarazpenak ematea (AO).
- Azokako dependentsia guztiak eta azokan egiten diren lanak ikuskatu (AO).
- Eraikinaren eta bere instalazioen mantentzeaz arduratu (AB).
- Bermeon kalez kaleko salmenta antolatu eta zaindu (AO).
- Azokaren aparkalekuko kudeaketa eta diruaren kudeaketa burutu (AO).



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214

Fecha: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia





- Aparkalekuko bonoak eta deskontu txartelak kudeatzeaz arduratu (AO).
- Gertatzen diren gorabehera, lege urratze eta akatsen berri emateaz arduratu (AO).
- Udal azokako egoitzaren segurtasuneko koordinatzaile izan (AO).
- Lanpostuaren kualifikazioaz bat etorrira agintzen zaion beste edozein eginkizun.

Nahiz eta gaur egun azokako arduradun plaza Administrazio Bereziko eskalako zerbitzu berezitako azpieskalan sailkatuta egon, administrazio lanak eta izapideak betetzea bere oinarrizko funtzioen artean daude. Beraz, Administrazio Orokorreko eta Bereziko eskaletan sailkatu behar da.

Gainera 1998ko urtarrilaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Azokako arduradun lanpostua jabetzaz betetzeko deialdian Administrazio Orokorreko eskalan sailkatu zen.

Aipatu bezala, **liburutegi eta artxiboko laguntzaile** plaza ere Administrazio Orokorreko eta Bereziko eskaletan sailkatu behar da, kontuan izanik plaza horrek honako funtzio hauek dituela esleituta:

- Artxiboko erabiltzaileen eskaerei erantzun, informazio eskariak, kontsulta eta mailegu eskariak (AB)
- Hala eskatzen duten prozeduretan artxiboko datuak jaso eta estatistikak egin (AO)
- Artxiboko materialen fotokopiak egin eta beharrekoa denean erreziboa egin (AO).
- Kontratuak eta irudien kudeaketa egiten lagundu (AO).
- Artxiboko web orriaren eguneratzeaz arduratu: albiste, loturak eta baliabide atalean (AB),
- Artxioboaren barruan zein kanpoan, kultura hedapena duten eta artxiiboak antolatu dituen ekintzei buruzko informazioa eratzerakoan laguntza eman (AB)
- Gela zaindu eta materialak eta ekipoak era egokian erabiltzen direla ikusi (AO).
- Ogasun sailarekin harremanak izan (AO).



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214

Fecha: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- Agintzen zaizkion eta bere kategoriarekin bat datozen gainontzeko zereginak.

Era berean, **Liburutegiko atezainaren** funtzioei erreparatuz gero, plaza hori ere, bai Administrazio Orokorreko bai Administrazio Bereziko sailkatu dezakegu:

- iburutegia zabaldu eta itxi. Gela guztiak zabaldu eta dena ordenan dagoen ikusi. Jendearentzako atea zabaldu irekitzeko ordua denean. Ixterakoan, gela guztiak konprobatu inor barruan geratu ez dadin, argiak amatatu, atea eta leihoak itxi, larrialdietarako atea konprobatu eta kanpoko atea itxi (AB).
- Eraikinaren giltzen kontrola (AB).
- Instalazioetako mantentzea eta zaintza (AB).
- Eraikinaren matenimendu orokorra, konponketa errazak eginez (AO).
- Liburuak eskatzen dituztenean laguntza mena, liburuen sarrerak eta irteerak erregistratu eta alarmak aktibatu eta desaktibatu.
- Eskatzen zaionean, kultura-animazioko ekintzetan parte hartu, arduradunaren jarraibideak jarraituz (AO).
- Liburutegi eta artxiboko laguntzaileari lagundu Bermeorekin lotuta argitalpenak, material grafikoa... eguneratzen (AO).
- Liburutegira heltzen diren pakete zein materialak hartu eta dagokionari jakinarazi (AB).
- Liburutegiak ondo funtzionatu dezan beharrezkoak diren lanak egin, horretarako langile espezifikorik egongo ez balitz (AO).
- Agintzen zaizkion eta bere kategoriarekin bat datozen gainontzeko zereginak.

Aipatutako funtzioei erreparatuz gero, agerian dago Liburutegi eta artxiboko laguntzaile plaza eta Liburutegiko atezain plaza Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko eskalara sailkatu behar direla. Batetik, bi plazez izaera orokorreko funtzioak dituztelako esleitura, hau da, administrazio jarduerarekin zerikusia daukaten funtzioak daukate



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8001146B600I6Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214

Fecha: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



esleituta; eta, bestetik, lanpostuari esleitutako funtzioen artean, badaudelako funtzio espezializatuak ere.

Seigarrena: Kontuan izanda Kultura eta Hezkuntza Sailaren egungo egitura eta Kulturako teknikari koordinatzailearen lanpostuko (11150541) funtzioak kultura arlora bideratuta daudela, egoki ikusten da lanpostu horri izena aldatzea (Kulturako teknikaria), horrela beste sailtako teknikari lanpostuen izenekin parekotasuna lortu baitaitezke.

Zazpigarrena: 2021eko urtarrilaren 29ako Osoko Bilkurak izandako batzarrean, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua desegitearen ondorioak zehaztea erabaki zen eta Lanpostuen zerrenda bateratua onartu zen.

Aipatutako erabakia 2021eko otsailaren 18ko 33. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Argitaratutako Lanpostuen Zerrendan, Musika Eskolako ikasketa buru eta Musika Eskolako irakasle lanpostuei esleitutako mailan akatsa antzeman da, 21 maila begiesten da eta 17 maila dagokie aipatutako lanpostuei.

Ezinbestekoa da Lanpostuen zerrendan akats hori zuzentzea, jarraian zehazten den moduan jarritz:

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA												
1150342	MUSIKA ESKOLAKO IKASKETA BURU	1	A2	17	19.117,36	3	10.07.14	A	L	L	EMT	Hutsik D.P.
1150342	MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA	1	A2	17	15.105,93	3	10.07.14	A	L	L	EMT	Hutsik D.P.

Zortzigarrena: Kirol Saileko egungo egituran igeriketako monitorea – sorosle lanpostu bi begiesten dira. Lanpostu horiek igeriketa ikastaroak eta sorosle funtzioak betetzeko sortu ziren, honako funtzio hauekin:

- Istripuak ekiditearren, piszinetako erabiltzaileen portaera kontrolatu, uraren barruan zein kanpoan.
- Istripua jasan duen pertsonari laguntza eman, uretako erreskateak, sendaketak... eginez.



- Osasun-arauek arabera istripuen liburu-erregistroa egunean eduki.
- Telefonoaz eta megafoniaz arduratu.
- Pizinetako ateak ireki eta itxi, pizina nagusia estaltzen duen estalkia igo eta jeitsi, pizina mantentzen egokian lagundu, erratza pasatuz...
- Jendeari arreta eskeini, kexak jaso...
- Pizina tenperatura neurtu, garbitasunaz arduratu... eta anomaliarik ikusiz gero, zuzendariari jakinarazi edo mantentzen arduradunari deitu.
- Sorosle lanerako beharrezkoa den materialaz arduratu eta falta denean, eskaera bideratu.
- Igeriketa ikastaroen arduraduna da:
- Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera klaseak prestatu, ikastaroen programazioa diseinatu...
- Klaseak ematen ari ez denean, erabiltzileei aholku teknikoak eman.
- Klaseak eman ahal izateko beharrezkoa den materiala prestatu, kontrolatu eta zaindu.
- Agintzen zaizkion eta bere kategoriarekin bat datozen gainontzeko zereginak.

Kirol saileko zuzendariaren txostenean adierazten denez, gaur egun lanpostu horiek betetzen dituzten langileek sorosle funtzioak bakarrik betetzen dituzte.

2022. urtean Bermeoko Udalaren instalazioetan kirol jarduerak garatu eta emateko zerbitzuen prestazioa kontratatu zen. Kontratazio hori gauzatzeko beharrezkoa eta egokitasuna justifikatzeko atalean honako hau ezartzen da:

“Bermeoko Udalaren helburuen artean herritarren bizimodu osasuntsua sustatzea da. Beraz, bere instalazioetan kirol jardueren sustapena eta garapena ezinbestekoa da eta horretarako urtero kirol jardueren egitaraua eskaintzen du.

Kirol egitaraua urtero egokitu behar da, kontuan izan da, alde batetik, herritarren interesak eta beste aldetik, ateratzen diren kirol jarduerak berriak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024 13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214  
Data: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8001146B60016Y2H5T6G4P3



Udalak zuzenean emango balu kirol jardueren zerbitzua ez luke izango aukerarik malgutasunez jokatzeko eta zerbitzuak eskatzen dituen egokitzapenak egiteko. Pandemia garaiak eta aldi berean, igerilekuan egindako egokitzapenak hainbat hilabete izan zuten kiroldegia itxita; azken horrek abonatu kopuruan jetsiera handia eragin zuen.

Aurtengo denboraldia oso motela izan da, eta datorren denboraldiko kirol eskeintza egokitu egin behar dugu aurtengo denboraldian izan dugun partaidetza kontuan izanda.”

Horrez gain, eta baliabide gabeziari dagokionez honako hau adierazten da:

“Bermeoko Udalak ez dauka giza baliabide nahikorik zerbitzu-kontratu hau aurrera eramateko. Kirol Sailaren egitura profil profesionaletan oinarrituta dago, eta profil horiek ez datoz bat kirol –ikastaroak ematen dituzten pertsonen profilarekin. Kirol-eskaintza urtarokoa izan ohi da, eta denboraldi bakoitza joera berriekin eguneratzen da, programazioa erabiltzaileen eskariaren arabera aldatuz. Administrazioak ez du behar besteko malgutasunik sektore honetan gertatzen diren eskariaren gabezi edo eskariaren goraldi horiei erantzuteko”.

Kirol Saileko zuzendariak bere txostenean adierazten duenez, igeriketa monitore-sorosle lanpostuak *“bere eginkizun baliotsuena galdu dau, uretako jardueren irakaskuntza”*, eta etorkizunera begira horrela jarraitzea aurreikusten da.

Argi dago lanpostu horiek etorkizunera begira ez direla beharrezkoak izango antolakuntzarako, beraz lanpostu horiek amortizatu egin beharko dira eta, ondorioz, kendu ahal izango dira Lanpostuen zerrendatik.

Udalak, bere auto-antolaketarako ahalmena erabiliz, bere antolamenduaren beharrian zehatzak baloratu behar ditu, eta bere egitura osatzen duten lanpostuen ezaugarriak definitu. Lanpostuen zerrenda aldatuz gauzatzen da jarduera hori eta horretan oinarrituta, lanpostuak iraungi daitezke dagokien amortizazioaren bidez.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024  
13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214

Fecha: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8001146B60016Y2H5T6G4P3



Azken finean, beharrizanen plangintza egoki batek, behar diren giza baliabideak aurreikustez gain, beharrezkoak ez direnak alde batera uztea ere badakar; beraz, beharrezkoa ez den edozein lanpostu amortizatu behar da.

Horren aurrean, ezinbestekoa da lanpostu horiei "iraungitzeko" izaera jartzea, eta ondorioz, lanpostuak amortizatu egingo lirateke titularren lan harremanak amaitu ahala.

Beratzigarrena: Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 45.7. artikulua xedatzen du:

**"45. artikulua.– Lanpostu-zerrendak.**

7.– Lanpostu-zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez, non ezingo duten barnean hartu lanposturik baldin eta haren dotazioari ezin bazaio eutsi dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantilletan aurreikusitako kredituekin."

Horren arabera, 2021eko maiatzaren 28an izandako Osoko Bilkuran, herri lanetako peoien dotazioa lanpostu bitan gutxitu zen eta gidari lanpostua iraungi zen, aurrekontuan zuzkidura nahikoa ez baitzegoen.

Ondorioz, herri lanetako arloaren gaur egungo egiturak (l.eranskina) honako giza baliabide hauek aurreikusten ditu:

Lanpostua	Dotazioa
Herri lanetako lan talde arduraduna	1
Ofiziala (Igeltseroa)	1
Ofiziala (Lurperatzailea)	1
Ofiziala (Iturgina)	1
Ofiziala (Sodalgintza)	1
Ofiziala (Biltegia)	1
Itsasontzi mantentze langilea	1
Herri lanetako peoia	6

Zerbitzuetako arduradunak herri lanetako peoien dotazioa gehitzea ezinbestekoa dela adierazi du bere txostenean, beharrizan hori honela justifikatuz:



“Azken urte hauetan herria nabarmen hazi da guen batzuen urbanizazioa gauzatu den heinean. Halaber, obra garrantzitsuak egin dira esparru publiko berriak sortzen herritarren erabilerarako.

Bestalde, zerbitzu sailari dagokionez, udal gobernu talde ezberdinen eskaerak gero eta gehiago izaten dira herritarrei zerbitzu egokiak emateko asmoz, bai auzoetan bai herrigunetan.”

Hala eta guztiz ere, herri lanetako taldea ez da sendotu beharrian guzti hauei aurre egin ahal izateko eta kontuan izanda udalak ematen duen zerbitzu-mailak lotura estua daukala eskura ditugun baliabideekin, ezinbestekotzat jotzen da plantilla indatzea.”

Ondorioz, eta herriaren beharrianei eraginkortasunez erantzun ahal izateko, nahitaezkoa da herri lanetako peoi lanpostuko dotazioa gehitzea, beste peoi lanpostu bi gehituz.

Hamargarrena: 2023ko urtarrilaren 3ko 2023000013 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, kale garbiketa zerbitzua indartzeko eta berrantolatzeke aldi baterako programa onartu zen.

2023ko abenduaren 20ko 20230005296 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez aipatutako aldi baterako programa hori luzatzea onartu zen, Idazkari Nagusiaren kontrako irizpenarekin, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 28.a.e) artikulua xedatzen duenaren arabera, ohiko ez diren jarduerak izan beharko direlako eta ez egiturazkoak.

2019ko otsailaren 28an Osoko Bilkurak izandako batzarrean, eta kale garbiketako lanak indartzeko ureztatzeke eta hidrogarbigailuaren zerbitzuak kontsolidatzea erabaki zen, kale garbiketako gidari bat (1) eta kale garbiketako peoi bi (2) lanpostuen zerrendan sortuz:

Lanpostua	Arloa
Kale garbiketako gidaria	Ureztatze zerbitzua
Kale garbiketako peoia	Ureztatze zerbitzua
Kale garbiketako peoia	Hidrogarbigailua

Gaur egun, kale garbiketa zerbitzuko egiturari honako lanpostu hauek aurreikusten dira (6 gidari eta 14 peoi):



Lanpostua	
1 Kale garbiketako gidaria	1 Erratz makina
2 Kale garbiketako gidaria	2 Erratz makina
3 Kale garbiketako gidaria	3 Erratz makina
4 Kale garbiketako gidaria	4 Erratz makina
5 Kale garbiketako gidaria	5 Ureztatzea
6 Kale garbiketako gidaria	6 Ureztatzea
1 Kale garbiketako peoia	1 Erratz makina
2 Kale garbiketako peoia	2 Erratz makina
3 Kale garbiketako peoia	3 Erratz makina
4 Kale garbiketako peoia	4 Erratz makina
5 Kale garbiketako peoia	5 Ureztatzea + jaiak...
6 Kale garbiketako peoia	6 Ureztatzea + jaiak...
7 Kale garbiketako peoia	7 Hidrogarbigailua
8 Kale garbiketako peoia	8 Ibilbidea erratza
9 Kale garbiketako peoia	9 Ibilbidea erratza
10 Kale garbiketako peoia	10 Ibilbidea erratza
11 Kale garbiketako peoia	11 Ibilbidea erratza
12 Kale garbiketako peoia	12 Ibilbidea erratza
13 Kale garbiketako peoia	13 Ibilbidea erratza
14 Kale garbiketako peoia	14 Ibilbidea erratza

Alde zaharrean, erratz makinek sortutako zarata nabaria dela-eta, hainbat kexa zirela medio, gune horretako garbiketa eskuzko erratz makina elektriko baten bitartez egitea erabaki zen. Aipatutako eskuzko erratz makinaren erabilerari buruzko formakuntza, kale garbiketako peoia den IHG eman zitzaion, eta beraz, langile horri esleitu zitzaizkion eskuzko erratz makinarekin bete beharrezko zeregin horiek.

Hori dela-eta, 2022ko abuztuaren 9ko 20220002771 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, eta kale garbiketako eskuzko erratz makina berriaren hornidura egin zenez, kale garbiketako peoia den IHG jaunaren ordezkapena onartu zen, enplegatu horri esleitu baitzitzaion eskuzko erratz makinaren erabilera.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8001146B60016Y2H5T6G4P3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
05/11/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/11/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2024  
13:02:34

DOCUMENTO: 20241132214

Fecha: 05/11/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8001146B60016Y2H5T6G4P3





Zerbitzu Saileko arduradunak informatu zuenez, eskuzko erratz makinaren frogaren emaitzak bikainak izan zirenez, zerbitzu berri horrekin jarraitzea proposatzen zuen, beharrezkoa baita iraupen luzeagoan emaitzen mantentzea egiaztatzea.

Eskuzko erratz makinaren erabileraz gain, Alde Zaharraren itxura hobetzeko helburuarekin, beste garbiketa lan osagarriak beteko ditu gunehonetan, besteak beste, belarrak kendu, ur-hustubideak garbitu, kartelak kendu.

2016ko abenduaren 5ean Tokiko Gobernu Batzarrak izandako bileran, Bermeoko Udaleko kale garbitasunerako plangintza onartu zuen, eta bertan, oinezkoen erabilera handia duten gunetarako eskuzko erratz makinaren erabilera aurreikusten da.

Ondorioz, eta kale garbitasunerako plangintzan aurreikusitakoa bermatu ahal izateko, nahitaezkoa da kale garbiketako peoi lanpostuen dotazioa igotzea plaza bat gehiago sortuz, Alde Zaharreko ibilbidean eskuzko erratz makinaren erabilera bermatu ahal izateko.

Hamaikagarrena: 2024ko irailaren 6an, udaleko antolakuntzako teknikariak Antolakuntza eta Teknologi Berriak Sailaren izena eguneratzea proposatu du:

“LEHENENGOA: Antolakuntza eta Teknologi Berriak Sailaren misio eta lan lerroak, gaur egungo kontzeptu eta izenekin identifikatzeko honako eguneraketa egitea:

### **BERRIKUNTZA, GOBERNU IREKIA ETA HERRITARREN ARRETA**

- **BERRIKUNTZA:** Bai kudeaketa mailan zein teknologikoan egiten den lanagatik.
- **GOBERNU IREKIA:** Gardentasuna eta partaidetza bere gain hartzen ditu, datu irekien eta datu pertsonalen segurtasuna barne
- **ETA HERRITARREN ARRETA:** Hiru arreta bideak sail honek kudeatzen ditu azken 20 urteetan.

BIGARRENA: Ebazpen hau udal sail guztiei jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.”

Antolakuntzako teknikariak bere proposamenean adierazten duenez “*sail honen baitan dauden lan eremuak (Gobernu Irekia, udal modernizazioa, Herritarren Arreta, Komunikazioa eta Eraldaketa Digitala) sailaren izenarekin lotura izatea, identifikatuta gelditzea eta bai udal barnera begira zen kanpora begira misioarekin bat egitea garrantzitsua da*”.



#### Sinadurea eta data



Hamabigarrena: Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.6 artikulua xedatzen du:

**“45. artikulua.– Lanpostu-zerrendak.**

6.– Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezeko tresnak.

